

Kimetz Furundarena Agirre

E maila • 1 saria

11 urte ditut eta Beasaingo Agerre Haundi baserrian bizi naiz. Kirolzalea naiz, xakean ibiltzen naiz, pelikulak ikustea eta irakurtzea eta bertsolaritza gogoko ditut, egun Beasaingo bertso-eskolara joaten naiz. Denbora gustoko gauzetan igarotzeko tartea dugun honetan, goza dezagun irakuketaz, idazketaz, eskulanez...izan gaitezen sortzaile.



Doinua: Txuriko

KLIMA ALDAKETA

Negu erdian gaude
txaketa kenduta,
eta lurra daukagu
seko lehortuta.
Lore eta zuhaitzak
jada loratuta,
eguraldiak nauka
guztiz kezkatuta.

Gai honek merezi du
guztion arreta,
nola bizi gaitezke
hondatuz planeta?
gutaz eta sistemaz
egin hausnarketa
ea konpontzen dugun
klima aldaketa.